

HISTORIA GARAIKIDEKO IKERTZAILE GAZTEEN III. TOPAKETAK

Gasteizen, 2011ko irailaren 13tik 16ra

NORK IRAGARRIA:



ANTOLATZAILEA:



Valentín de Foronda

Instituto
de Historia Social
Gizarte Historiarako
Instituta



UPV EHU

Lehendabiziko zirkularra

TOPAKETEN HELBURUAK

AHCko Historia Garaikideko Ikertzaile Gazteen III. Topaketa hauen helburu nagusia, Zaragozan eta Granadan burututakoen ildo beretik, doktore gazteek, bekadunek, lizentziatuek eta ikertzaileek orokorrean burutzen ari diren edo burutu berri dituzten ikerketak erabilita eztabaidagune bat sortzea da.

Parte hartzeko modua aurreko topaketetan erabilitakoaren antzerakoa izango da. Parte hartzaileek, ikerketa proiektuen laburpenak edo ondorioak edo lan zehatzagoei buruzko *paper*-ak aurkeztu ahal izango dituzte. III. Topaketa hauek mintegi ezberdinez egituratuak egongo dira, mintegi bakoitzak bere moderatzailea izango duelarik. Moderatzailearen funtzioa, jasotako komunikazioen artean zubi lana egitea, lantzen den gaiaren egungo egoeraren azalpen txiki bat botatzea eta eztabaida historiografiko irekia, aberatsa eta erraza lortzea izango da. Kongresua osatuko duten mintegiak eta mintegi bakoitzaren edukiak honako hauek dira:

MINTEGIAK

1.- Emakumearen eta generoaren historia

Mintegi honetan emakumearen eta generoaren historiari buruzko lan orok izango du lekua. Lanok, ikuspuntu historiografiko nahiz metodologiko ezberdinak izan ahalko dituzte. Mahai edo mintegi honetara zuzendutako testuak gai ezberdinen ingurukoak izango dira, hala nola, mobilizazio politikoaren, elkartegintzaren, lan munduaren edo eguneroko bizitza eta nortasunen eraikuntzaren ingurukoak, besteak beste.

2.- Erlijiotasuna eta laikotasuna

Mahai honetan historia garaikideko izate erlijiosoarekin zerikusia duten lan guztiek izango dute lekua. Beraz, edukiek sinesmen edo espiritualitate formak ikertu ahalko dituzte, eta baita katolikotasunaren eta laizismoaren arteko gatazkaren ondorioz emandako eztabaida eta aurkakotasunak ere.

3.- Nazionalismoa eta lurraldetasuna

Mintegi honetan, mugimendu erregionalistak eta nazionalistak (Estatu Espainiarraren barnekoak nahiz kanpokoak), zein fenomeno hauek ikertzeko marko teoriko/metodologiko orokorrak eskaintzen dituzten komunikazioak aurkeztu ahal izango dira. Nortasunaren eraikuntza jorratzen duten proposamenek eraikuntza hori azaltzeko oinarri ezberdinak izan ahalko dituzte; esaterako, diskurtsoa, praktika edo mobilizazioa.

4.- Kulturaren historia

Definizio egoki bat emateak suposatzen duen zailtasunaren kontuan hartuta, mintegi honek bilduko dituen komunikazio eta eztabaidak, tradizionalki kulturaren historiaren barnean landu diren gaiak izango dira. Hori dela eta, produkzio artistiko ezberdinak, komunikazio moduak, intelektualak, irakurketak, edizioak, politika kulturalak, ondareak, transferentzia kulturalak edo praktika kulturalekin zerikusia dituzten gizarteratzea hizpide dituzten gaiak bilduko dira.

5.- Historia soziala

Mintegi honetan, zentzu zabalean Historia soziala jorratzen duten komunikazioek lekua izango dute. Modu zehatzagoan esateko; mintegi honen helburu nagusia lan munduaren inguruan, mugimendu sozial "berrien", gizarte harremanen, arlo ezberdinetako elkartegintzaren, lan munduko gatazkaren eta gizarte protesten inguruko gaiak eztabaidatzea izango da.

6.- Hiriaren historia

Mintegi honetan hirien modernizazioarekin zerikusia duten ikerketak izango ditugu eztabaidarako gai. Aurkeztu beharreko komunikazioak hirien eraldaketa prozesu ezberdinen ingurukoak izango dira; demografiaren, hiritartasunaren, politikaren, ekonomiaren, gizartearen zein kulturaren ikuspuntutik jorratuak.

7.- Landa-munduaren historia

Mintegi honen oinarria landa-inguruneari buruzko ikasketak izango dira. Horrenbestez, landa-munduaren sozializatzeko eta modernizatzeko politikoa aztertzen duten lanak barne sartzen dira. Halaber, nekazarri sistemen aldaketekin lotutako ingurunearen ikerketaren gaineko edota baliabideen gaineko garaiko ingurune-gatazken gaineko proposamenak ere bilduko dira.

8.- Biografia, prosopografia eta eliteak

Antolakuntza komiteak, ohiko historia politikoaren mahaia banatzea erabaki du, eztabaida ahalik eta emankorrena izan dadin eta mintegia hain heterogeneoa izan ez dadin. Beraz, mahai honetan, garaiko historia politikoaren eragileak ikuspegi biografiko edota prosopografikoan aztertzea bide duen komunikazio oro bilduko da.

9.- Kultura politikoak

Mintegi honek edozein ikuspegi edota metodologia erabilia kultura politikoak aztertzea emana den komunikazio oro baitan hartuko du. Arlo honek, jarrera politikoaren arauak aztertuko ditu, alderdi eta eragile politikoetan edo diskurtsoaren historian soilik zentratzen den ikuspegi klasikoaz haratago, jardute sinbolikoak eta ohiturak edota kultur transmisioa ere kontutan hartuz.

10.- Indarkeria politikoa

Mintegi honetan, indarkeria politiko gisa ezagutzen dugun fenomeno honen inguruko hausnarketa teoriko eta metodologikoak zein haren adierazpen anitzak (kontrol sozialetik hasita erailketaraino) bildu nahi ditugu; indarkeria politikoa bai boterea bereganatzeko, zein Estatuaren zimentarriak kolokan jartzeko, zein Estatuak disidentziari eusteko bide gisa masak eremu publikoan barneratu zirenetik orokortu zela kontutan hartuz.

11.- Orainaldiaren historia

Mintegi honek, orainaldiaren historiaren barna sartzen diren parametroak erabiliz lan egiten duten ikertzaile gazteen lanak batuko ditu. Honen asmoa, garaiko historialarien arreta ahozko iturriak eta memoria edota iragan oraintsuari lotutako gaiak jorratzen dituzten eremuen inguruan indartzea izango da. Beraz, tailer honetan, hispaniar eremuaz gaindiko komunikazioak ere sartuko dira.

12.- Ekonomi historia

Mintegi honetan, ekonomi historia zentzu zabalean, edozein metodologia zein ikuspegi hartuta, ikertzea helburu duten lanak bilduko dira. Ekonomi sektoreen historia, garraioaren eta garraioaren historia, hazkundearen ideia historia edo ekonomi pentsamoldearen historia jorratzen duten lanak mahai honetarako oso baliagarriak dira.

13.- Nazioarteko harremanen historia

Mintegi honek, Espainiaren kanpo-politika zein nazioarteko harremanak ikertzen dituzten komunikazioak baitan hartuko ditu. Halaber, arlo honetako ikerketen egoerari buruzko lanak eta etorkizunera begira egindako ikuskerei buruzko lanak ere bilduko dira.

14.- Historiografia, metodologia, iturriak

Mintegi honen asmoa, historialariaren lanbidearen arazoengatik inguruan gogoeta egitea da. Horretarako historiografiaren historiari, metodologiaren analisiari eta erabilitako iturriei buruzko testuak erabiliko dira. Halaber, historiaren eta oroimenaren arteko harreman eta kontraesana hizpide izango dugu.

KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO PROPOSAMENAK

III. Topaketetan parte hartu nahi duten ikerlarientzako, komunikazioak aurkezteko *lehen* izen-emate epea zabaldu da.

Hauek, gehienez 3.000 karaktere izango dituzte (Times New Roman 12 iturrian, 1,5eko espazioan aurkeztu beharko direlarik), eta egilearen izena, izenburua, laburpena eta zein mintegitara aurkeztu nahi duten jarri beharko dute.

Aipatutako lehen izen-emate epea 2011.eko Urtarrilaren 31an bukatuko da. Proposamen guztiak behin jasota, behin-betiko testuak jasotzeko eta III. Topaketetarako izena emateko epe berri bat zabalduko da.

Laburpenak III. Topaketeten helbide elektronikora (jovenesinvestigadores2011@gmail.com) bidaliko dira (antolakuntza taldea, hauek jaso izana komunikatzeaz arduratuko da).

BESTELAKO ARGIBIDEAK

Topaketetara agertzeko ez da beharrezkoa komunikazioren bat bidali izana.

Izena emateko kuota 30 eurotako izango da. Bertan, materialak, Irailaren 14ko eta 15eko bazkariak eta antolatuko diren kultur ekitaldiak sartzen dira.

Komunikazioak euskarri informatikoan argitaratuko dira.

Topaketetako antolakuntza komiteak Gasteizen ostatu hartzeko aukeren gaineko informazioa emango du.

Topaketa hauen gaineko informazio osoa <http://jovenesinvestigadores2011.blogspot.com> blogean eskuragarri egongo da.